



## Miguel Ángel Peña Cerezo

Finantza Ekonomia eta Kontabilitatea arloko unibertsitateko irakasle titularra (UPV/EHU), Docentiaz **2017an "irakasle bikaina" kalifikazioarekin ebaluatua. "Estatistika aplikatuko metodo aurreratuak"** graduondoko ikasketak UNEDen. Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktore (Doktoregoko Sari Berezia) eta Aseguru Aktuarioa UPV/EHUn.

Egun, Finantzak eta Finantza Zuzendaritza Unibertsitate Masterreko (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Sarriko) eta Enpresen eta Administrazio Zuzendaritzako Graduak (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Arabako Atala) irakaslea da. **UPV/EHUko "Digital Management & ERP: La gestión de la empresa 4.0"** Berezko Masterreko Zuzendarikide akademikoa da. Parte hartu du, baita ere, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalak, Finantza Masterrak eta UPV/EHUko Esperientzia Gelek edo Monterreyko (Mexiko) Goi-mailako Ikasketa eta Teknologia Institutuak antolatutako ikastaro, mintegi edo graduondoko ikasketetan. **"Finantza Produktu Deribatuen: Aukerak eta Etorkizunak" Unibertsitate Ikastaroko** arduraduna izan da. Master Amaierako Lanak eta Gradu Amaierako Lanak zuzentzen ditu eta praktiken tutorea da.

Unibertsitate gestioko karguak izan ditu: esaterako, Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Kalitate eta Ikasketa Berrikuntzako Zuzendariordetzan edo Praktika eta Enpresekiko Harremanen Dekanordetzan, Ekonomia eta Enpresa Fakultatean, Arabako Atala; azken horren koordinatzailea da egun.

Lankidetzan proiektuak eta aholkularitza lanak garatu ditu abokatu bulego, industria, finantza, logistika eta merkataritza enprekin eta sari ezberdinak lortu ditu nazio mailako zein nazioarteko foroetan, finantza eta zientzia metodologiaren arloan egin dituen lanengatik. Parte hartu du, halaber, finantza eta curriculum garapenaren arloko ikerketa proiektuetan, eta zenbaitetako ikertzaile nagusia izan da.

Bere ikerketetan garatu dituen gai nagusiak dira finantza titulazioa eta kreditu prozklizitatea; bere artikuluak ondoko argitalpenetan argitaratu ditu, besteak beste: *Journal of Risk Model Validation*, *Applied Economic Letters*, *Spanish Journal of Finance and Accounting*, *Academia* edo *European Research on Management and Business Economics*. Ikerketari dagokionez, seiurteko bat du aitortuta.

[\[+ informazio gehiago\]](#)